

HITANOAREN ERABILERA SEGURAN: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA



HIZKUNTZA PLANGINTZA GRADUONDOKOA

Alaitz Imaz Arrondo

2017-2018 ikasturtea

Tutorea: Joxpi Irastortza

HITANOAREN ERABILERA SEGURAN: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Laburpena

Lan honekin Seguran hitanoak duen egoeraren argazki bat egin nahi izan dugu; belaunaldi zaharrenetatik gazteenetara zer nolako aldaketak eman diren ezagutu. Horrez gain, hitanoa, poliki-poliki, erabilera esparruak galtzen ari denez, egoerari buelta ematen saiatzeko gure aletxoa ipintzea da helburua: Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleei zuzenduriko sekuentzia didaktikoa. Helburua da ikasleek hitanoa ezagutzea eta horrez gain, motibagarri zein gertuko sentitzea. Horrela beraien hizkuntza-ohiturak aldatu eta hitanoari ere lekua egiten has daitezen beraien eguneroko elkarriketetan. Bereziki, neska-neska eta mutil-neska artean, mutilen arteko elkarriketa gehienak erregistro honetan izaten baitira.

Hitz gakoak: hitanoa, ezagutza, erabilera, sekuentzia didaktikoa

AURKIBIDEA

SARRERA	4
1. OINARRI TEORIKOAK	6
1.1. Justifikazioa	6
1.2. Testuingurua	7
1.3. Ohitura aldaketak	10
1.4. Hitanoaren erabilera egoeraren analisia	13
1.5. Txepetxen hizkuntzen jabekuntzaren paradigma	15
1.6. Hizkuntzaren ikaskuntza estrukturala vs komunikatiboa	17
1.7. Euskal Curriculumari ekarpena	18
1.8. Sekuentzia didaktikoaren justifikazioa	20
2. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA	22
1. SARRERA	23
2. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN EZAUGARRI OROKORRAK	23
2.1. Sekuentzia didaktikoaren helburu orokorra	23
2.2. Landuko diren oinarritzko zehar-konpetentziak	23
2.3. Landuko diren etapako helburuak	24
2.3.1. Euskara eta Literatura	24
2.3.2. Gizarte zientziak	24
2.3.3. Teknologia	24
2.4. Landuko diren Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak	24
2.4.1. Euskara eta literatura	24
2.4.2. Gizarte Zientziak	26
2.5. Landuko diren eduki didaktikoak	28
2.6. Ebaluazioa	28
2.6.1. Euskara eta Literatura	28
2.6.2. Gizarte Zientziak	31
2.6.3. Sekuentzia didaktiko honekin zuzenean lotutako ebaluazio-adierazleak	32
2.7. Kalifikazio irizpideak	33
2.8. Denboralizazioa	34
3. Eingo al diau?; nahi denanen, HIKA! SEKUENTZIA DIDAKTIKOA URRATSEZ URRATS ..	35
4. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA	53
BIBLIOGRAFIA	54

SARRERA

Hitanoari buruzko kezka aspalditxotik nuen piztua. Belaunaldi baten buruan erabilera zenbat gutxitu den ikusteak kezkatu egiten ninduen eta, bide batez, baita errudun sentiarazi ere. Izan ere, gure belaunaldia da noka apenas erabiltzen duen lehenetarikoa.

Etxean hitano artean hezia naiz, gurasoen arteko erregistro naturala hitanoa da, baita beraien senide, koinatu-koinata edota lagun artekoa ere. Nik, beraz, umetatik jaso eta ikasi dut hitanoa, pentsatu beharrik ez dut hitz egiterakoan, natural egin dezaket, baina erabiltzen al dut? Eta gainerakoek? Nola aldatu da belaunaldi batetik bestera hitanoaren erabilera? Nork erabiltzen du eta norekin?

Duela zortzi bat urte, nire kezka kuadrillako 2-3 mutilei aipatu nien eta beraiek ere bat zetozen nirekin, erabili ezean, urte gutxiren buruan noka segurarron artean desagertu egingo da. Noka diot, izan ere oraindik ere Segurako mutilen artean toka hitz egiten da, ez da normala bi mutil elkarren artean zuka hitz egiten entzutea. Horrela, bada, gure artean “hika kanpainak” egiten hasi ginen, poliki-poliki gure arteko hizkuntza-ohitura aldatu genuen arte.

Handik urte gutxira, *Hitz edo irri, euskaraz elkarri* herriko euskara elkartearen sartu ginen, besteren artean, aipatutako mutil horietako bat eta ni. Orduan koadrilan hitanoaren erabileraren inguruan genuen kezka, nolabait, pertsonala, elkartearen lan-ildo garrantzitsuenetako bat bihurtu genuen eta harrezkero, gure urteroko plangintzan toki garrantzitsua dute hitanoaren erabilera bultzatzeko ekintzek.

Buruan ditugun galderei erantzuna aurkitu eta egoerari buelta emateko asmoz, lana hiru zati nagusitan banatu dugu.

Hasteko, gaia testuinguruan kokatu eta erabilitako metodologiaren aipuak egin ditugu. Halaber, ikerketa gauzatu ahal izateko hainbat herritarri egindako galdeketetan jasotako iritziak ere atal honetan bildu ditugu.

Jarraian, bigarren atalean, herritarrei pasatako inkesten datuak aztertu ditugu gure hasierako galderei erantzuna emateko. Horrela, bada, saiatu gara belaunaldien artean hitanoaren erabileran, kantitatean nahiz kalitatean, eman diren aldaketak jasotzen.

Amaitzeko, haurren heziketan eta eduki zein baloreen transmisioan eskolak etxeak besteko garrantzia, are handiagoa, duenez, hitanoa lantzeko sekuentzia didaktiko bat aurkeztu dugu. Atal hau izango da lan honen bidez gizarteari egin nahi diogun ekarpena. Horretarako aurrez izandako esperientziak (hitanoaren erabilerari buruzko galdeketa nahiz hausnarketak eta herriko adizki bilketa) oinarri hartuta. Horrekin lortu nahi dugu eskolan hitanoari leku gehiago egitea, herriko haurrak, bereziki neskak, hitanoa beraien eguneroko elkarrizketetan sartzen hastea eta azken hamarkadetan gertatu den erabilera galerari oztopoak jarri eta egoerari buelta ematen hastea.

1. OINARRI TEORIKOAK

1.1. Justifikazioa

Segura euskararen arnasmune kontsideraturik dagoen Gipuzkoako herria da. Azken kale neurketen arabera, %89,7koa da euskararen erabilera kaleko elkarrizketetan, datu oso pozgarria. Baina ez da berdina gertatzen hitanoarekin. Gaur egun oraindik bizirik dugun “altxorra” badugu ere gure herrian, bereziki mutil-gizonen artean mantentzen da egunerokoan bizi-bizi hitanoa; neskak apenas erabiltzen dugu, 50 urte bueltatik gora dauden emakumeak dira hitanoz natural diharduten azken emakume segurarrak.

Egoera horretaz jabetuta, badira pare bat urte, *Hitz edo Irri, euskaraz elkarri* Segurako euskara elkarteko kideok egoerari buelta eman nahian gabiltzala; askotan itsu-itsuan nondik nora jo, zer egin ez dakigula. Hori dela eta, lehen pausu bat eman behar eta aurten, 2017ko azaroan, 50-80 urte bitarteko hainbat herritar (33 gizon-emakume) elkartu ditugu kafe-tertulia baten bueltan beraiek hitanoarekiko duten jarrera ezagutu eta horrekin batera, herrian erabiltzen diren adizkiak jaso asmoz. Horiez gain, 30 urte bueltako 5 pertsona ere elkarrizketatu ditugu, batzuen nahiz besteen jarrera aldatzen ote den jakin nahian.

Herriko hitanoaren egoera zein den ezagutzeko, guraso elkartearen, jubilatuen elkartearen, gazte-lekukoen eta beste hainbat herritarren kolaborazioa izan dugu. Modu batera edo bestera, 6tik 91 urtera bitarteko 250 pertsonen hitanoaren ezagutza zein erabilera ohituren berri izan dugu. Esan beharra dago, emaitzak genero ikuspuntutik ez direla oso orekatuak izan, inkestan gizonen parte-hartzea oso urria izan baita, %33,5a besterik ez. Ondorioz, ezin izan dugu herriko errealitatea luze zabalean ezagutu eta hemen islatu; herrian gehien hikaz aritzen direnak gizonezkoak baitira. Horrez gain, Laiotz herri eskolan ikasten duten haurren hitanoaren ezagutza zer nolakoa den ere jakin nahi izan dugu. Horretarako Lehen Hezkuntzan dauden haurrei, orotara ia 100 bati, inkesta bana pasa diegu.

Horrela, bada, lan honekin saiatuko gara adin tarte ezberdinetako jendearen ohiturak aztertzen: nork eta norekin egiten duen hika; transmisioan izan den etena zergatik gertatu den, jendeak hitanoarekiko zer nolako harremana duen (izan duen) ezagutzen... Eta bereziki, emakumeen artean zergatik ez den transmititu aztertu nahi izan da. Amaitzeko, aurrera begira hitanoa ez galtzeko edo erabilera ohitura berreskuratzeko eskolara zuzendutako sekuentzia didaktiko bat proposatuko dut.

1.2. Testuingurua


Euskal Herria orokorrean hartuta, hitanoan aritzen direnen kopurua ez da oso handia, baina datuak eskualdez eskualde, edota herriz herri hartuz gero, egoera aldatu egiten da. Gipuzkoako herri askotan esaterako, hiketa oraindik osasuntsu mantentzen da; bereziki toka, nokarekin ez da berdina gertatzen; batez ere 50 urtetik beherakoen erabilera ohiturei erreparatzen badiegu. Seguran egindako inkestaren datuek diotenez, 160 gizon-emakumetatik 34 lagunek ez dakite hika hitz egiten. Dakiten 126 horietatik, 102 pertsonak erabiltzen dute hitanoa beraien eguneroko komunikazio egoeretan. Datuak aztertuta, bitxikeria gisa aipatu nahi genuke Seguran bizi, baina inguruko herri handiago batean jaioak diren emakumeek ez dakitela hika hitz egiten; gizonak, aldiz, bai. 12-50 urteko Segurako emakumeen artean, berriz, asko dira hitanoa dakitela diotenak, baina gutxi erabiltzen dutenak.

Eskolako haurren inkesten emaitzak ere helduenen antzekoak dira; mutilek gelako gainerako mutilekin hitz egiteko erabiltzen dute eta neskek, berriz, ez dute erabiltzen. Ez erabiltzeaz gain, neska gehienek hitanoz hitz egiten ere ez dakitela erantzun dute. Nabarmentzekoa da hitanoa ezagutzen dutela eta jakin badakitela dioten neskak Lehen Hezkuntzako 3. ziklokoak direla eta mutilak, aldiz, lehen ziklotik hika aritzen dira.

Jarraian aztertuko ditut erabilera ohiturak, baina ondorengo eskema honetan ageri da laburtuta 12 urtetik gorako segurarrek hitanoa norekin erabiltzen duten:

Norekin erabiltzen duzu?

102 responses




Inkestan batez ere mutilak diren lagunekin ibiltzen dutenen kopurua nagusitzen bada ere, familiaren esparruan beste inon baino orokorragoa da hitanoaren erabilera. Arau orokorrik ez badago ere, senide zaharragoek gazteagoekin komunikatzeko erabiltzen dute tratamendu hau, baina alderantziz, ordea, zuka erabiltzen da. Esan behar da, familian gertatzen den asimetria hau, euskararen berezitasuna dela, gainerako hizkuntzetan ez da horrelakorik gertatzen (Alberdi, 1994).

Familiaren barruan hitanoaren erabileraren bidez, lotura handiagoko eta txikiagoko senidetasunak bereizi daitezke; normalagoa da gurasoek seme-alabei hika egitea, suhi-errainei, ilobei zein bilobei egitea baino. Inkestetatik atera ditugun datuen arabera, egun gaztetxo diren gehienei gurasoek zuka egiten diete, eta hika egiten dieten kasuetan, aitzak izaten dira semearengana zuzentzeko hitanoa erabiltzen dutenak, alabei gutxiagotan; eta amek ez dute tratamendu hau aitek bezain maiz aukeratzen beraien ondorengoei hitz egiterakoan. Haurrei egindako galdeketetan ere argi geratu da hori. Bederatzi mutilek adierazi dute amak hika, edo gutxienez bietara, egiten dietela, eta nesken kasuan, berriz, inori ez dio amak hika hitz egiten. Aitek gehiagotan egiten dute erregistro honen aldeko hautua, baina, bereziki, semeekin hitz egiteko; 30 mutikok erantzun dute aitzak hika hitz egiten dietela, nesken kasuan, aldiz, lauk. 66 urtetik gora dituztenen kasuan, aldiz, emakume zein gizonezko askok erantzun dute aitzak eta amak, biek, egiten zietela hika, edota gutxienez bietara: hika eta zuka.

Aitak nola hitz egiten dizu/zizun?


156 responses



● Hika
● Zuka
● Bietara
● Beste bat

Eta amak?

156 responses



● Hika
● Zuka
● Bietara
● Beste bat

Aiton-amonek bilobei hitz egiteko aukeratutako datuetan, hitanoaren erabilera nabarmen egiten du behera. Beraien bilobei hitz egiteko tratamendu hau aukeratzen dutenak, edota aukeratzen zutenak; bereziki aitonak dira eta beraien biloba mutilekin jarduten dira. Jubilatu elkartean bildu genituen 20 adinekoetatik gehienei, pentsa ezina egiten zitzaizen beraien biloba neskei noka hitz egitea; nahiz eta denek menperatu eta beraien ahizpa/arreba edota lagun neskekin horrela jardun normal-normal.

Maila bereko senideen artean ere, hots, anai-arreben artean, hitanoaren erabilera kopuruetan ezberdintasunak daude elkarrizketatuen adinaren arabera. 50 urtetik beherakoen kasuan, inkesta erantzun duten mutil gehienek erantzun dute anaiek beraien artean toka egiten dutela; baina, aldiz, arrebarekin zuka. Nesken kasuan, gutxi dira ahizparekin noka edota anaiarekin toka jarduten dutela esan duten gazteak. 51 urtetik gorakoetan, ostera, ohiturak aldatu egiten dira. Multzo honetan ere gizon gehienek esan dute anaiekin hika egiten dutela, eta arrebekin ere askok bai. Emakumeek ere antzeko erantzunak eman dituzte. Hori bai, egin ditugun elkarrizketetan, batek baino gehiagok esan digu senide zaharragoekin (sexu bereizketarik egin gabe) zuka egiten dutela eta gazteagoekin hika; adina edo sexu bereizketarik egin gabe batzuei hika egiten dietela eta beste zuka... elkarrizketatu adina kasu daude.

Familiatik kanpo sexu bereko lagunen artean erabiltzen da hitanoa bereziki; 50 urtetik gorakoetan mutil-mutil eta neska-neska hitanoz entzutea guztiz normala da Seguran, baina hortik behera, mutil-mutil trataera da jaun eta jabe. Mutil-neska arteko harremanetan hitanoa erabiltzeko muga ere adin tarte horretan kokatzen da, oro har. Hika aritzeko, Rudolf P.G de Rijk-ek (Rijk, 1992) dioen bezala, kidetasuna sentitzea beharrezkoa da, hots, auzotik, herritik, lanetik, eskolatik... elkar ezagutzea. Horrek

erakusten digu, Friedrich-ek (Friedrich, 1966) aipatutako hurbiltasun psikologikoa (bestearekiko begikotasuna) ez dela nahitaezko faktorea hika hitz egiteko garaian. Gertatu baitaiteke adiskide min batekin zuka aritzea eta beste pertsona batekin, hainbesteko konfiantzarik izan gabe, hika jardutea; bataren edo bestearen arteko hautua askotan ohitura kontua izan ohi da eta hori aldatzea kostatu egiten da.

1.3. Ohitura aldaketak

Euskal Herrian bizi dugun egoera diglosikoa dela eta, hizkuntza ohitura aldaketa entzuten dugunean, inguruko erdaretatik euskararako saltoa datorkigu burura. Baina horrez gain, beste aldaketa batzuk ere gerta daitezke, zukatik hitanorako saltoa esaterako.

Bi pertsonen arteko harremana hitanoz hastea prozesu naturala izan daiteke, baina baita ordura arte zuka hitz egin eta momentu batean hitanoz hitz egiten hasi behar duutela erabakitzea, edota alderantziz. Hau ez da arbitrarioki egindako aukera xume bat, atzetik faktore asko dituen baizik.

William Jamesek *Habitat* (James, 1914) artikuluan aipatzen du gizarteko ohiturek dauzkagun ohituretan eragiten dutela, eta are ohitura berriak sortzen ere lagun dezaketela. Horretarako, bere ustez, ondorengo hiru puntuak garrantzitsuak dira: *determinazioa* (gure helburua lortzeko gogotsu egon behar dugu eta hori lortzen lagunduko digun kontestua sortu behar dugu), *diziplina* (ohitura berria gureganatu arte ezin diogu gure buruari salbuespenik onartu) eta *motibazioa* (lortu nahi dugun aldaketa egiteko, parean jarritako aukera guztiak aprobeztatu behar ditugu).

Beraz, esan dezakegu ohiturak sortu egiten direla, eta ondorioz, aldatzea ere posible dela. Horretarako determinazioa, diziplina eta motibazioa ezinbestekoak dira. Baina erraza al da prozesu hori?

Inguruko esperientziei erreparatuta, esan daiteke tratamendu aldaketa egitea, hots zukatik hitanorako saltoa ematea, edota alderantzizkoa, oso zaila dela. Euskararen kasuan, gainera, pertsona bat ezagutu eta harekin formaltasunetik lagunarteko

tratamendu batera igarotzeko pausua egitea, inguruko hizkuntzetan baino zailagoa da (Alberdi, 1994), baina ez ezinezkoa. Batetik besterako salto horretan, ohiturak pisu handia du. Adibide gisa aipatu daiteke ikerketa hau gauzatzeko elkarriketatu ditugun hainbat gazteren kasua. 30 urte bueltako koadrila bateko 5 gazte elkarriketatu ditugu, euskara elkarrearekiko duten gertutasuna medio, beraiek hitanoarekin zer nolako jarrera duten ezagutu asmoz. Koadrila honetako kide dira euskara elkarteko 4 pertsona eta hauek beraien inguruan ahaleginak egiten dituzte elkartean eskuartean darabilten asmoa gauzatzeko. Hau da, beraien lagun-arteko hizkuntza aldatzea zukatik hikara. Bost pertsona hauek adinkideak eta betiko lagunak diren arren, ohitura aldatzea asko kostatzen ari zaiela nabarmendu dute, nahiz eta guztiek hitanoa ezagutu eta, neurri handi batean, menperatu.

Kanpotik jasotzen ditugun estimuluek guregan eragin handia dute; arau sozial subjektiboen arabera gure portaera moldatzeko gai gara. Horrela, bada, gizartean hitanoa gaizki ikusia egoteak ez dio askorik lagundu azken hamarkadetan.

Denok ezagutzen ditugu bere gazte garaian euskarak izan zuen desprestigioagatik gazteleraz mintzatzen diren herri euskaldunetako gizon-emakumeak. Eta hitanoarekin ere berdina gertatu zen. Segurako erretiratuei egindako elkarriketetan batek baino gehiagok aipatu digute ondorengoei ez dietela hitanoz egiten zakarra delako, ez delako goxoa, itsusia delako... Honen guztiaren atzean gizarteak hitanoaren erabilerari emandako ospe txarra egon daiteke: baserritarren hizkuntza zela, errespetu falta zela, ez duela kontu formaletarako balio... Eta horrek guztiak, hitanoaren balioa gutxitu zuen, hiltune hitanoa erabiltzeko lotsa sorrarazteraino. Gauzak horrela, familia askotan transmisioa eten egin da. Nahiz eta gurasoek beraien artean edota beraien senideekin hika egin, ondorengoei zuka egiteko hautua hartu zuten, eta egun ere hala gertatzen da. Bitxia da herritarrei hitanoaren erabilerari buruz egindako galdetegian, oraindik orain, 21-35 urte bitarteko pare bat pertsonak erantzutea zuka hitz egiten dutela hitanoz aritzea errespetu falta iruditzen zaielako.

Denboran atzera eginez gero, 70-80ko hamarkadetara hain juxtu ere, hitanoa erregistro informaltzat hartzen zen, ez seriotzat, eta hikaz jarduten zuten bi lagun bikote izatera igarotzen baziren, hizkuntza ohitura aldatzeko “beharturik” sentitzen ziren;

ezkonduen artean zuka egitea baitzen legea (Alberdi, 1994). Horretan eragin handia izan zuten elizgizon eta guraso moralistek, beti saiatu izan baitira hika baztertzen, horrek konfiantza adierazten zuelako, eta konfiantzak bekaturako bidea erraztu (Elexpuru, 2018). Alberdiren eta Elexpururen aipamenez gain, ikerketa hau egiteko herriko adinekoak kafe-tertulia batean bildu genituenean, hainbat lagunek eman zigun honi buruzko beraien bizipenen berri; hizkuntza ohitura aldatu zutenak batzuk eta oraindik hikaz jarraitzen dutenak beste batzuk.

Gizona ta biok, elkarrekin hasi aurretik e laun arten batea ibiltzen giñen, ta beti elkarri hika etten giondun. Baino behin harremana hasi ta ia gauzea aurea zijola ikusi genunen pentsau genun zuka pasatzeko garaie izango zala. Eztakit... seriotasunekin eo lotzen gendun. Ta gaur da eune, elkarri hikaik ein ezin diouna, asko kostatzen zaigu, dana zuka etten deu. (Emakumea 1, 66 urte, Segura).

Gu betiko bizilaunek gea ta elkarrekin hasi aurretik dana hika etten gendun, baita elkarrekin ibiltzen hasi giñenen e. Hala, aiau zan bodako eune, ta apaizek esan ziun: “beno, hemendik aurea zuka hitzein beharko dezue e!”. Baino ez gionun kasoik ein, guk hika etten seitzen deu. Nola aldauko gendun ba? (Emakumea 2, 68 urte, Segura).

Guri atte-amak, bik, hika etten ziguen, ne senidekin ta gizonakin e hala etten det, baino semegai ez. Semegai beti zuka etten diet, beno bronkea botatzekon ez, ordun hika. Eztakit... zuka goxogoa eo iruitzen zat. (Emakumea 3, 66 urte, Segura).

1.4. Hitanoaren erabilera egoeraren analisia

Bi belaunaldiren bueltan hitanoaren erabilera nola aldatu den aztertzea genuen helburuetako bat eta hori konprobatzea lortu dugu. Batetik erabilera kantitatean egon da aldaketa eta bestetik, kalitatean.

Hasteko, kantitatearen bideari heldu eta gazteei erreparatzen badiegu, esan daiteke mutilak direla hitanoaren erabiltzaile bakarrak, baina toka soilik erabiltzen dute gehienek, noka aritzeko zailtasunak dituztela aitortzen dute askok. Hori, ordea, ez zaie mutilei bakarrik gertatzen, neska gehienek ere toka errazago egiten dutela esan dute; mutilekin hika aritzea errazago egiten zaiela neskekin baino. Izan ere, belarria toka entzutera egina dute, ez hainbeste noka entzutera.

Paula Kasaresek (2014) dion bezala, pertsonon sozializazio prozesua jarraitua da, ez da inoiz amaitzen; heldu arora iritsitakoan ere status edo jarduera berrietan sozializatzen jarraitzen dugu. Horrela, bada, esan behar da hizkuntza sozializazioa prozesu dinamikoa dela eta belaunaldi arteko elkarrekintzan ez ezik, adinkideen arteko harremanetan ere gertatzen dela.

Transmisioa goitik beherakoa bezala ulertu izan dugu orokorrean, baina hitanoaren erabilera edo ezagutza zabaltzeko kasuan, ez du zertan zentzu horretan bakarrik gertatu (Beitia, 2017). Ikusi dugunaren arabera, guraso gehienek seme-alabei hika egiten ez badiete ere, hauek kalean entzunda edota lagunartean esperimentatzen ikasi ohi dute; hizkuntza molde hau ezaugarritzen duen horizontalitate edota simetriari esker.

Horizontalitatearen teoria hau, Seguran egindako inkesten bidez ere froga dezakegu. Ikerketa egiten hasi aurreko hipotesi nagusia zen 50-60 urtetik gorakoek hitanoa goitik beherako transmisioaren bidez jaso eta ikasi zutela eta belaunaldi hori bera izan dela transmisioa eten duena; ondorengoei egin ez diena. Baina inkestak aztertu ondoren, esan daiteke 70-80 urte bueltakoek ere oso gutxitan hitz egiten dutela hitanoz beren seme-alabekin; nabarmen gutxiago alabekin. Beraz, argi dago transmisioa tratamendu simetriko bidezkoa izan dela batez ere, eta goitik beherakoa izan denean,

nahiko modu pasiboan jaso dutela. Hots, gurasoak beraien artean, osaba-izebekin edota lagunekin hizketan entzutearen poderioz ikasita.

Lan honen helburu nagusietako bat zen emakumeen kasuan hitanoa, edo zehatzago esanda noketa, zergatik desagertu den aztertzea. Jakina denez, tradizionalki etxea, hots esparru pribatua, izan da emakumearen espazioa, eta gizonarena, berriz, auzoa edo herria, espazio publikoa. Horrela, bada, egun gauzak aldatu badira ere eta seme-alaben hezkuntzaren ardura bi gurasoek badute ere, duela ez asko arte emakumeak arduratu dira haurren hezkuntzaz, eta bide batez, baita hizkuntzaren transmisioaz ere (Ferreira, 2007).

Euskal Herriko gizarte tradizionalan, nekazal zein arrantza munduetan besteak beste, auzoko nahiz herriko emakumeak maiz elkartzen ziren beraien lanak egiteko edota auzolanak egiteko: errekan arropak garbitu, gaixoak nahiz umeak zaindu, soroko lanak egin... Eta noski, etxeko txikienak beraien inguruan izango zirenez, emakume hauen hitz jariora entzun eta barneratuko zuten. Tradizionalki, beraz, ama izan da umeen sozializatzaile garrantzitsua eta garaiak aldatu eta emakumea ere lan mundura sartzearekin, umeek denbora gutxiago igarotzen dute emakume erreferenteekin eta emakumeen arteko hiketa entzuteari utzi diote, neurri handi batean.

Bestetik, batzuek zein besteek erabiltzen duten hitano horren kalitatean ere izan dira aldaketak. Batetik, erabiltzen diren adizkiak Segurako berezko euskaltitik urruntzen ari dira, baturantz gerturatuz. Honetan zerikusia du oraingo belaunaldia aurrekoa baino gehiago ateratzen dela herritik (bidaiak, ikasketak...). Horrez gain, euskarazko telebistan zein literaturan ere, presentzia oso handia ez bada ere, tarteka zerbait agertzen da, eta maiz hori da gertuan duten hitano erreferentzia bakarra, beraz hortik ikasten dute.

Horrez gain, kasu askotan gurasoetatik seme-alabetara hitanoaren transmisioan etena egon da eta ondorioz, gazteei erreferenteak falta zaizkie. Hori horrela izanik, kalean beraien artean esperimentatuz hasten dira hitanoa ikasten zein erabiltzen eta erreferentzia horren faltan, hiper hiketa nagusitzen ari da. Hots, behar ez den tokian hika erabiltzea; bereziki menpeko perpausetan. Segurako mutil gazteen artean behinik behin, oso zabalduta dago *beandu etorriko **dekela** esan dik esatea beandu etorriko dala*

esan dik-en orde. Halaber, galderazko perpausetan ezin da alokutiboa erabili, baina joera erabat orokortua da Seguran, gazte nahiz helduen artean.

Ikerketa hau egiteko kontuan hartu ditugun bi belaunaldien artean beste ezberdintasun bat ere topatu dugu: adizkien forma. Hitanoa bultzatzeko egitasmoak martxan jartzen hasi ginenean, herriko adizkien bilketa egin nahi izan genuen eta horretarako, 50-80 urte bitarteko 30-35 pertsona elkartu genituen kafe-tertulia batean. Talde txikitan elkartu eta galderak egin genizkien herriko adizkiak jasotzeko. Lanarekin aurrera egin ahala, herriko adinekoek erabiltzen dituzten adizkiak, 25-30 urte bueltakook erabiltzen ditugunekin alderatu genituen eta jabetu gara, gazteenok euskara batuaren eragin handia dugula; ez ditugu gure herriko helduek erabiltzen dituzten forma berak erabiltzen beti. Herriko hizkeraren eta batuaren arteko nahasketa gertatzen ari da.

1.5. Txepetxek hizkuntzen jabekuntzaren paradigma

Txepetxek *Un futuro para nuestro pasado* lanean dio gaur egungo euskaldunak erdaldunak garela; segun eta non, euskara edo erdara direla gure barruko hizkuntzak. Bere arabera, “barne-hizkuntza”, hots pentsatzeko zein gure buruarekin hitz egiteko erabiltze duguna, euskara huts dutenak, dugunak, gutxi dira, edo gara. Baina horrek ez du euskararen erabileran albo-kalterik eragiten; horregatik ez da baztertzeko. Izan ere, hizkuntza komunitate baten identitate-marka da, eta aipatu komunitateak euskara baldin badu bere ezaugarri, nahiz eta norbanakoren batek gaztelaniaz pentsatu, taldearen hizkuntza euskara izango da.

Batzuen arabera, familia eta etxea dira edozein hizkuntzaren lehentasunezko erabilera-eremu; are gehiago, hauen arabera, ingurune honetan transmisioa eteten bada, hizkuntzaren biziraupena bera ere arriskuan legoke. Txepetx, ordea, ahalegindu da teoria honi aurka egin eta hizkuntza ordezkapenari buelta emateko bidea aurkitzen hizkuntzen ikaste prozesua analizatuz.

Horrela, bada, 1987an hizkuntzen irakaskuntzan eragiten duten hiru aldagai nagusiak zein diren aztertu zuen; hots, motibazioa, ezagutza eta erabilera.

Motibazioari izugarrizko garrantzia ematen zion, bere aburuz ikasten hasteko eta gero erabiltzen hasteko berebizikoa baita. *Ezagutza* hizkuntza horren funtzionamenduaren barneratze-prozesuaren ondorioa da, eta azkenik, *erabilera* komunitateak momentu historiko batean dituen hizkuntza-funtzioetan hizkuntza horren erabilera-mailan oinarritzen da. Bere arabera, hiru faktore horiek beharrezkoak dira hizkuntza bat ikasteko bidean. Hortik abiatuta ikaskuntza prozesuan bi ibilbide bereizten ditu.

Batetik, primarioa edo naturala; hau da, haurtzaroan gertatzen dena. Prozesu honetan erabilera, ezagutza eta motibazioa berezkoak dira. Eta bestetik, sekundarioa edo kulturala; heldu batek hizkuntza bat ikasten duenean gertatzen dena. Hemen, berriz, irakaskuntzan eragiten duten aldagaiak kulturalak dira.

Txepetxen arabera, pertsona gehienek bi ikasketa prozesuak betetzen dituzte: naturala eta kulturala. Horrela, edozein hizkuntzaren hiltun oso bihurtuz. Noski, ordena ezberdina izaten da. Hizkuntza umetan ikasi duenak lehenengo prozesu naturala burutzen du eta gero kulturala, eta heldutan ikasi duenak, ostera, alderantziz; aurrena ikasketa sekundarioa egingo du eta gero lortuko du naturaltasuna.

Hiltun osoak dira beharrezko elementuak dira edozein hizkuntzak biziraungo badu. Berauek baitira ingurukoengan eragingo dutenak, eta ondorioz, gizartean gero eta hiltun oso gehiago egon, orduan eta sendoagoa izango da hizkuntza komunitatea. Ondorioz, hizkuntzaren iraupena ziurtatuta egongo da; talde hau izango baita hizkuntzaren sustapenaren eta indartzearen gakoa.

Baina nor da hiltun osoa? Euskara batuan soilik aritzen dena euskal hiltun osoa al da? Galdera horri erantzuna ematea zaila bezain arriskutsua da. Izan ere, Euskal Herriaren luze-zabaleko egoerak hain anitzak direnez, herriak adina errealitate daude. Ez da berdina euskaldun oso izatea Amikuzen, Bilbon edota Seguran.

Euskarak hainbat erregistro ditu, ez soilik batua. Hor daude euskalkiak eta hitanoa ere. Seguran, zorionez, bizi-bizi eta indarrean ditugu bai bata zein bestea. Beraz, ezin esan segurar bat hiltun oso izan daitekeenik euskalkia edota hitanoa ezagutu gabe. Gauzak horrela, euskal hiltun oso diren herritarrak izaten jarrai dezagun, lan honetan

aurkeztu dugun sekuentzia didaktikoaren bitartez herriko haurrak hitanoaren mundura murgildu nahi ditugu.

1.6. Hizkuntzaren ikaskuntza estrukturala vs komunikatiboa

Hizkuntzen irakaskuntza prozesua denbora igaro ahala, poliki-poliki, aldatzen ari da. Psikologian eta linguistikan korrante berriak sortu ahala eredu tradizionaletik estrukturalera, handik eredu kognitibora... eta horrela egun indartzen ari den eredura iritsi arte: Atazetan Oinarritutako Irakaskuntza.

Munduan zehar AOI orokortzen ari bada ere, Euskal Herriko eskoletan oraindik ikuspegi estrukturalista da nagusi; hots, gramatikaren irakaskuntza hutsean oinarritzen dira. Halere, ofizialki, behinik behin, ikuspegi komunikatiboak ere badu bere lekua. Lehen, izenak dioen gisan, esaldiaren gramatika oinarritzen da, ariketa analitikoak egitean. Bigarrena, berriz, testugintzan oinarritzen da, hau da, testuak sortzeko ariketak egitera bideratzen dira ikasleak. Batean zein bestean akatsak zuzentzeari ematen zaio garrantzia, ikasketa edota lanketa prozesuri eman beharrean.

Euskal eskoletako curriculumetan oraindik ikuspegi tradizionalista izan arren nagusi, hainbat euskaltegi jada, AEK kasu, Atazetan Oinarritutako Irakaskuntzarako jauzia egin dute. Hizkuntza bat ikastean helburua komunikatzea denez, metodologia honen bidez, ikasleak atazetan oinarritutako jarduerak burutzen jartzen dituzte eta prozesuan zehar, hizkuntzari baino garrantzi gehiago ematen zaie eginkizuna burutzeko jarraitutako urratsei.

Prozesuaren giltzarria komunikazioa denez, ikasleentzat interesgarri eta motibagarri izan dadin saiatu behar da, eta horretarako `praktika ahalik eta errealean bideratu behar dira; eguneroko bizian lagunduko dietenak. Gauzak horrela, sekuentzia didaktiko honekin hitanoa modu erakargarri, motibagarri zein praktikoa irakastea dugu helburu. Horretarako, hitanoa erabiltzen den egoeretan zentratuko gara edukietan baino gehiago.

1.7. Euskal Curriculumari ekarpena

Jacques Delors-en arabera, mundu osoan hezkuntzak helburu bera du: gizabanakoen artean erreferentzia komunitatetik eratorritako gizarte loturak eratzea. Hau da, belaunaldiz belaunaldi kultura eta gizarte ezaugarriak transmititzea. Ideia hau hartu eta gaur egun euskal eskoletan darabiltzaten ikasmaterialei erreparatzen badiegu, jabetuko gara transmisio hori ez dela gertatzen; euskal kultura espezifikoa ez du tokirik curriculum ofizialetan. Izan ere, espainiar eta frantziar estatuek kultura nahiz hizkuntza bakarra hartzen dituzte erreferentzia gisa, gainerakoak baztertuz.

Non geratzen da hortaz urteetan zehar sortutako eta garatutako gure hizkuntzaren nahiz kulturaren aberastasuna? Kezka hori abiapuntu hartuta, Euskal Curriculumaren helburua egoerari buelta ematea da.

Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumuma egin dutenen arabera, “Euskal Curriculumuma” da: munduaren ikuspegi jakin batetik egindako kultur prozesuen eta produktuen hautaketa. Kultur prozesu eta produktuetan, euskaldunontzat berezkoak direnak eta unibertsalak sartzen *dira (oinarrizko txostena)*. Horrekin uler daiteke beraien helburua ez dela soilik euskal kultura eta hizkuntza soilik irakastea, baizik eta mundu osoko kultur prozesu eta ekoizpenak irakastea, baina beti ere oinarritzat gure testuingurua izanda.

Lan honetan Euskal Curriculumumean hizkuntza arloak zer nolako garrantzia duen aztertzeraz mugatuko gara, hori baita gure gaiari, hitanoari, zuzenean eragiten dion konpetentzia.

Jakina da hizkuntza arloak izugarrizko garrantzia duela hezkuntzan gainerako gaitasunak lortzeko orduan; berau baita gure zeregin guztietan erabiltzen dugun bitartekoa. Horregatik, beharrezkoa da ikasleak prestatzea inguruan dituzten hizkuntzak erabiltzen; errealitatea barneratzeko tresna baita. Hori horrela izanik, beharrezkoa iruditzen zaigu eskoletan batuaz gain hitanoari ere garrantzia ematea. Aurrez esan bezala, urteetan zehar landu eta osatutako euskal kultura irakatsi eta zein transmititu

behar baitiegu gure gaztetxoei, eta hitanoa ahozketasunaren kulturen oso garrantzitsua izan da, eta oraindik ere, hainbat gunetan horrela baita.

XXI. mendeko gizartea eleanitza da eta ondorioz, beharrezkoa da euskaraz gain, beste hizkuntzak ere lantzea. Baina beti ere, euskararen iraunkortasuna bermatuz. Horretarako beharrezkoa izango da ikasleek normalizaziorako konpromisoa hartzea eta euskara hizkuntza nagusitzat hartzea; egunerokoan erabilgarria nahiz praktikoa dela sentitzea. Horretarako beharrezkoa da hizkuntzen lanketa komunikaziotik eta erabileratik abiatuta planifikatzea.

Arestian esan bezala, Hizkuntza arloak eleaniztasuna hartzen du ardatz, ikasleen komunikazio gaitasuna garatzea oinarri hartuta. Mundu globalizatu honetan hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu, baina curriculumean euskarari begirako hutsuneak nabari ditugu. Izan ere, euskararen lanketari dagokionean inoiz ez zaio hitanoari erreferentziarik egiten, eta hori ere euskararen eta euskal kulturaren parte da; egun oraindik ingurune askotan bizirik mantentzen duten altxorra. Baina zaindu, landu eta transmititu ezean, poliki-poliki, beste hainbat inguruetan gertatu den bezala, egun hitanoa normal-normal erabiltzen den gunetatik ere desagertu egingo da. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu Euskal Curriculumean lanketa horri ere tokia egitea.

Ahozko komunikazioa menderatzea lehentasunezko konpetentzia denez, gure proposamena curriculumean ondo egokitzen dela iruditzen zaigu. Izan ere, hitz egiten jakiteak esan nahi du hizkuntza erabiltzeko gai garela komunikazio egoera ezberdinetan: testuinguru informal eta bat-batekoan edota egoera formal nahiz landuetan.

Hizkuntzen konpetentzia ikasteaz gain, herritarrek elkarrekin bizitzen ikastea eta ikasleak horretan hezteak ere garrantzitsua da; gizarte balioen transmisioa ziurtatzeko funtsezkoa baita. Ildo horretatik, UNESCOk adierazi gisa, garrantzitsua da herri bateko komunitate ezberdinetako kideek elkar ezagutzea eta proiektu komunean parte hartzea. Beraz, hitanoa bizi-bizirik dagoen herrietan, ezinbestekoa izan behar luke eskolako haurren eta gainerako herritarren (adinekoak, baserritarrak, noka diharduten emakumeak...) arteko harremana eta ezagutza bultzatzea. Haurrek, helduen arrazoiak eta sentimenduak ulertzen baldin badituzte, beraiek ere hitanoa afektibotasun horrekin

lotuko dute eta baliagarri sentituko dute. Horrela, gainera, ikasleek elkarlanerako kompetentzia ere bereganatuko dute eta horrek balioko die erantzukizunak partekatzen ikasteko zein beraien burua hobeto ezagutzeko, besteak beste.

1.8. Sekuentzia didaktikoaren justifikazioa

Sekuentzia didaktikoa metodologia egokia da hizkuntzak ikasteko, ikasketa prozesua modu praktikoan izan dadin ahalbidetzen baitu. Gainera, gizarteko errealitate zehatz batera egokitzeke malgutasuna izateaz gain, prozesu egituratua ere bada eta horrek ez dio lekurik uzten inprobisazioari (Obaya eta Ponce, 2017).

Esan bezala, inprobisazioari lekurik ez uztea garrantzitsua da eta horregatik, ikasleak kalean hitanoz aritzea nahi badugu, ezinbestekoa izango da ahozko jardun praktikak diseinatzea. Ikasleei egoera zehatzetan erabil ditzaketen esaldia edo elkarriketa ereduak irakastea garrantzitsua izango da, horiek ere ikasketa iturri izango baitituzte. Horrela, bada, ikasleei erritualizatutako diskurtsoak prestatzeko eskatuko diegu eta modu honetara ikasleen arreta erakarriko dugu (Vilá i Santasusana, 2011). Hitanoari erabilgarritasuna ikusteko, ikasleek proposatzen diegunari zentzua ikusi behar diote; egunerokoan zein baliagarri izango zaien ikusi. Horregatik, oso garrantzitsua da testuinguru errealean oinarritutako proiektu nahiz jarduerak klaseratzea. Izan ere, beraien egunerokoan erabil dezaketela jabetzen badira, ikasteko motibazioa piztuko zaie.

Ikasleen arreta erakartzen badugu, inplikazioa eta motibazioa ere lortuko ditugu eta horiek ezinbesteko faktoreak dira ikaskuntza prozesuan; horiek gabe ezin da arrakastarik lortu ikas-prozesuan. Ikasleak zenbat eta inplikazio handiagoa izan ataza bat egiteko garaian, errazago egingo dute eta emaitzak hobeak izango dira. Jakina da gazteei ezin zaiela derrigortuta eta forma aspergarrian irakatsi; lortu nahi den helburuaren aurkakoa lortuko bailitzateke. Horregatik, hezkuntzan orain arteko moldeak (aditz-taulak) alde batera utzi eta jolas moduan erakutsi beharko litzateke. Horrek egingo bailuke hitanoa erakargarri eta gaztetxoek aisialdiarekin lotu eta funtzio

bat aurkituko lieketenez, errazago transmitituko litzateke. Hau da, proposatzen diegunari zentzua aurkitu behar diote, erabilgarritasuna (Antero, 2016).

2. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

-Eingo al diau?

-Nahi denanen, HIKA!

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA



1. SARRERA

Sekuentzia didaktiko hau Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan lantzeko pentsatua dago; euskara eta literatura ikasgaietan. Hizkuntza irakaspenera zuzendutako ikasgaien helburua da ikasleak inguruan dituzten hizkuntzak erabiltzeko gai izatea bizitza pertsonaleko nahiz sozialeko ezein esparrutan. Beraz, hitanoa gure hizkuntzaren barneko erregistro bat denez, sekuentzia didaktiko honen helburuek bat egiten dute irakasgaiarenekin. Halaber, Gizarte Zientziak arloko hainbat helburu ere lantzen ditu; hitanoa gure kulturaren ezaugarri bereizgarrietako bat den heinean. Amaitzeko, teknologiaren arloak ere bere garrantzia izango du. Batetik, herritarrekin izaten dituzten hartu-emanak grabatu egin beharko baitituzte ondoren klasean lantzeko, eta bestetik, bikoizketa bat egin behar dutelako.

2. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN EZAUGARRI OROKORRAK

2.1. Sekuentzia didaktikoaren helburu orokorra

Eingo al diau?; Nahi denanen, HIKA! sekuentzia didaktikoaren helburu nagusia hitanoa ezagutu eta berarekin jolasten hastea da. Gaiarekin hartu emanetan jartzeko eta unitateari hasiera emateko, unitatearen azalean agertzen diren argazkiak erabil daitezke; ea ikasleei zer datorkien gogora.

Gaia klasean lantzeaz gain, hitanoz aritzeko ohitura herrian oraindik bizi-bizirik mantentzen denez, klasetik atera eta herritarrekin elkarlanean ere jardungo dute; gelako ariketez gain, herriko errealitatea ezagutu dezaten. Horretarako ikasleak taldeka banatuko dira eta herriko 2-3 pertsonen jarrera eta portaerak aztertuko dituzte. Behin herriko hitanodunekin lanean jardun ondoren, ikasitako hori praktikan jarri eta erabilgarritasuna ikusteko, gogokoen dituzten marrazki-bizidunak hitanora bikoiztuko dituzte.

2.2. Landuko diren oinarrizko zehar-konpetentziak

- Ikasten eta pentsatzen ikastea.
- Komunikatzen ikastea

- Elkarrekin bizitzen ikastea
- Norbera izaten ikastea

2.3. Landuko diren etapako helburuak

2.3.1. Euskara eta Literatura

- Ahozko eta idatzizko testuak (elkarrizketak) ulertzea eta interpretatzea.
- Elkarrizketetan parte-hartze egokia izatea eta lankidetzarauak errespetatzea.
- Testuak planifikatzea komunikazio egoeraren arabera.
- Euskararen erregistroak ezagutu, interpretatu eta praktikan jartzea.
- Txisteak eta antzerkiak testu-genero bezala ezagutzea.

2.3.2. Gizarte zientziak

- Talde lanean elkarlanean jardutea modu konstruktiboan, arduraz eta elkartasunez.
- Ezaugarri bereizgarriak dituen gizarte- eta kultura-taldeko kide direla jabetzea.
- Gizakiak eguneroko bizitzan ingurumena eta ondare historiko nahiz kulturala babesteko duen gaitasunaz jabetzea.

2.3.3. Teknologia

- IKTak modu egokian erabiltzea, informazioa bilatzeko, grabatzeko zein testuak sortzeko (idatziz nahiz ahoz) eta berrikusteko.

2.4. Landuko diren Lehen Hezkuntzako 2. zikloko edukiak

2.4.1. Euskara eta literatura

Etaparen honetarako zehaztutako edukien artean honakoak landuko dituen sekuentzia didaktikoa honek:

1. MULTZOA. Arlo guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea, eta beharrezkoa bada, hura doitzea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin.
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

2. MULTZOA. Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea.

- Hainbat euskarritako ahozko testuak (kontakizunak, elkarriketak...) ulertzea eta ekoiztea.
- Informazioa antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea, ahozko testuak ekoiztea helburu hartuta.
- Ahozko komunikazioaren oinarrizko ezaugarriak eta espresio-elementu espezifikoak.
- Ikasgelan landutako ahozko generoen funtsezko ezaugarriak: solaskideak, helburua, erregistroa, egitura, hizkuntza-elementu espezifikoak...
- Ahoz modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea.
- Solaskideen hizkuntza-erabilerekiko errespetua izatea.

3. MULTZOA. Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

- Hainbat euskarritako idatzizko testuak ulertzea eta ekoiztea: kontakizunak, pasadizoak, elkarriketak...
- Informazioa antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea, idatzizko testuak ekoiztea helburu hartuta.

-Idatzizko testuen ulermen- nahiz ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.

-Ikasgelan landutako idatzizko generoen funtsezko ezaugarriak: solaskideak, helburua, erregistroa...

4. MULTZOA. Literatura-hezkuntza

-Ipuin, kontakizun, poema eta bertso laburrak denen artean irakurtzea eta entzutea.

-Literatura-testuen irakurketa dramatizatua egitea eta abestiak, poemak eta bertsoak errezipitatzeko, eta horretan, tonua, erritmoa, ahoskera eta abiadura zaintzea.

-Aldez aurretik egindako plangintza bati jarraituz eta zenbait eredutan oinarrituz, ipuinak, poemak, kontakizunak eta bertsoak ahoz nahiz idatziz birsortzea eta ekoiztea.

-Ahozko nahiz idatzizko literatura-generoak.

-Bertsolaritza eta ahozko euskal literaturako beste genero batzuk.

-Beste literatura-adierazpen batzuk: komikia, zinema...

5. MULTZOA. Hizkuntza eta haren erabilerei buruzko gogoeta

-Ahozko komunikazioaren eta idatzizko komunikazioaren arteko oinarritzeko desberdintasun formalei modu gidatuan igartzea.

-Hizkuntzaren lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun nagusiei igartzea.

-Ahozko nahiz idatzizko testuak kasuan kasuko komunikazio-egoeretara moldatzeko: erregistroa eta oinarritzeko esplikazio-prozedurak.

2.4.2. Gizarte Zientziak

Eta honetarako zehaztutako edukien artean honakoak landuko ditu sekuentzia didaktiko honek:

1. MULTZOA. Arlo guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak iturri geografiko, historiko eta sozialetan informazioa bilatzeko erabiltzea.
- Pentsamendu-trebetasunak garatzea.
- Ikasgelako lana garatzeko estrategiak: erantzukizuna eta ahalegin-gaitasuna.
- Ingurunekeko elementu naturalen zein kulturalen kontserbaziorako sentsibilitatea eta errespetua.
- Lan egiteko erabiltzen diren materialak behar bezala eta errespetuz erabiltzea.
- Gizonek eta emakumeek historian subjektu gisa betetzen duten zeregina balioestea.

1. MULTZOA. Gure mundua eta haren kontserbazioa

- Gizarte tirabirak: familia barnekoak, lan-arlokoak... Gatazkak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzearen bidez konpontzeko era demokratikoak.
- Bide-hezkuntza. Bide-arloko jarrera eta ohitura zuzenak finkatzen lagunduko duten jakintzak eskuratzea.

2. MULTZOA. Denboraren arrastoa

- Euskal eta espainiar gizartearen bilakaera denboran: historiaurreko, antzinakoa, Erdi Arokoa, aurkikuntzen arokoa, industria-garapeneko eta XX. mendeko mundukoa, gizon-emakumeen bizimodu, gertaera eta pertsonaia garrantzitsuak aztertzearen bitartez.
- Gure ondare historiko eta kulturala: Euskal Herriko ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak.

2.5. Landuko diren eduki didaktikoak

- Elkarreraginean aritzeko zenbait prozedura
- Ahozko diskurtsoa kudeatzeko prozedurak
- Hika, zuka eta berorika
- Antzerkiak egiteko prozedurak
- Txiste eta umorezko pasadizo kontaketa
- Txisteetako eta pasadizo-xelebreetako pertsonaia euskaldunak
- Teknologia berrien erabilera

2.6. Ebaluazioa

Ebaluatu egingo dira ikasleen lana eta ikaskuntza-prozesua. Ebaluazioa ikasteko tresna zein aukera baita.

Hori horrela izan dadin, ebaluazioa prozesu etengabe eta integratua izango da. Ebaluazioaren informazioa baliagarria izan behar da irakasle taldeak ikasleen errendimendua, ikasprozesuaren eraginkortasuna eta bere jarduna balioztatzeko.

Ebaluatzeko modua ezarritako helburuen eta definitutako irizpide metodologikoen arabera izango da. Hori kontuan izanda, ebaluazioa jarria izango da, sekuentzia didaktikoaren fase guztietan agertuko da. Horrela, unitatea garatu ahala, hura erregulatu, aldatu eta egokitu ahalko dugu ikasleen beharren arabera.

Horretarako, Curriculumean zehaztuta dauden Lehen Hezkuntzako lorpen adierazle hauek erabiliko ditugu:

2.6.1. Euskara eta Literatura

1. Harreman interpertsonaletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea, informazio garrantzitsuena ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinentea hautatuz.

- Badaki ahozko testuak zer generotakoak diren identifikatzen.

- Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
- Gai da entzuketa-lanen helburuarekin bat datorren informazioa identifikatzeko eta lortzeko.
- Gai da informazioa erregistratzeko irakasleek emandako zenbait baliabide modu eraginkorrean erabiltzeko: fitxak, taulak...
- Badaki besteei aktiboki eta errespetu osoz entzuten.

2. Harreman interpertsonaletan, hedabideetan, hezkuntzan eta literaturan sarri-sarri agertu ohi diren moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testu soilak sortzea norbaiten laguntzarekin, eta horretan, bai ikus-entzunezko teknologia berriak, bai IKTak eta bai hitzezko zein hitzik gabeko baliabideak txukun eta egoki erabiltzea.

- Komunikazio-egoera zein den kontuan hartuta, erabaki pertinenteak hartzen ditu: erregistro nahiz euskarri egokiak hautatzen ditu.
- Badaki ahozko testuetako edukia antolatzen.
- Ahozko testua txukun-txukun aurkezten du eta ahoskera garbia du.
- Bere ahozko ekoizpenetan euskarri bisual eta IKT baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen ditu.

3. Eguneroko egoera interaktiboetan parte hartzea, eta horretan, komunikazio-trukearen oinarrizko arauak errespetatzea.

- Badaki egoerarekin bat datorren hizkuntza-erregistroa erabiltzen.

4. Harreman interpertsonaletan, hedabideetan, hezkuntzan eta literaturan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko idatzizko testu soil-soilak paperean nahiz euskarri digitalean sortzea norbaiten laguntzarekin.

- Gai da komunikazio-egoeraren ezaugarriak modu gidatuan aztertzeko.
- Komunikazio-egoera zein den kontuan hartuta, erabaki pertinenteak hartzen ditu: erregistro nahiz euskarri egokiak hartzen ditu.
- Txukun sortzen ditu idatzizko testuak.
- IKT baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen ditu; bere idazlanak sortu eta zabaltzeko.

5. Testu, enuntziatu eta hitzak elkarrekin alderatu eta transformatu, eta hizkuntza-sistemari eta hizkuntzaren erabilera-arauei buruz gogoeta egiteko gai izatea, eta ezaguera horiek ulermen-arazoak konpontzeko eta testualizazio- eta berrikusketa-prozesuak hobetzeko erabiltzea.

-Gai da, zikloan landutako testuetatik oinarrizko sintaxi-egiturak identifikatzeko eta erabiltzeko.

-Bere ekoizpenetan oinarrizko arau morfosintaktikoak errespetatzen ditu: deklinabidea, komuztadura...

6. Irakurtzeko ohitura izatea, eta literatura gozamen-iturritzat eta mundua ezagutzeko bidetzat hartzea.

-Proposatzen zaizkion literatura-testuak irakurri eta gozamen iturritzat hartzen ditu.

-Literatura-lanen edukia bere bizipenekin lotzen du.

7. Norberaren inguruan hitz egiten diren hizkuntzak identifikatzea eta balioestea.

-Gai da inguruan dituen pertsonen hizkuntza-errepertorioaren parte diren munduko hizkuntzak identifikatzeko.

-Hizkuntzen aldeko interesa eta errespetua du, eta haiekiko eta hiztunekiko aurreiritziak baztertzen ditu.

8. Norberaren ikasgelako, eskolako eta etxe inguruko errealitate linguistikoa zein den jakitea, eta errealitate linguistiko hori balioestea.

-Gai da ikasgelan nahiz eskolan hitz egiten diren hizkuntzen erabilera-ohiturak aztertzeko, balioesteko eta ohitura eraikitzaileak proposatzeko.

-Gai da bere inguruan kontaktuan dauden hizkuntzen arteko interakzio-egoerak identifikatzeko.

-Bere inguruko hizkuntza-aniztasuna kultura-aberastasuntzat hartzen du.

9. Ohitura eta jokabide linguistiko asertibo eta enpatikoak hartuz joatea, eta eskolan euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera izatea.

-Eskolako komunikazio-trukeetan modu proaktiboan erabiltzen du euskara.

-Euskara erabiltzearen aldeko jarrera asertiboa eta enpatikoa du.

10. Informazioa bilatzeko, hautatzeko, kudeatzeko eta komunikatzeko prozesuan, norbaiten laguntzarekin informazioaren teknologiak erabiltzeko gai izatea, eskolan egunero sortzen zaizkion premiei aurre egiteko.

-Gai da norbaiten laguntzarekin informazioa ordenagailu bidez nahiz online gordetzeko eta berreskuratzeke.

-Ahozko nahiz idatzizko testuak eta testu multimodalak ekoizteko beharrezkoak diren baliabide eta aplikazioak erabiltzen ditu, bai bakarka eta bai taldean.

11. Gai izatea norberaren ikaskuntza linguistikoaz gogoeta egiteko, eta horretan, norberaren ikaskuntza-gaitasunean konfiantza izatea, horrela nork bere burua erregulatzen ikasteko.

-Bai bere eta bai besteen sormen-lanak berrikusteko eta hobetzeko zereginetan parte hartzen du modu gidatuan, eta besteen ekarpenak balioesten ditu.

-Gai da hizkuntzarako konpetentzian aurrera egiteko aukera ematen dioten egoerak eta jarduerak modu gidatuan identifikatzeko.

-Huts egitea hizkuntzak ikasteko prozesuaren ezinbesteko partetzat hartzen du, eta bere burua hobetzearen aldeko jarrera du.

2.6.2. Gizarte Zientziak

1. Giza taldeak askotarikoak direla onartzea eta errespetatzea, lankidetzeta eta parte-hartze arduratsua lantzea, eta elkarrizketetan eta eztabaidetan, gainerako pertsonen ideiak eta ekarpenak desberdinak direnean, errespetuz eta tolerantziaz onartzea, haiek, balio demokratikoak eta guztiok onartutako giza eskubideak oinarri hartuta.

-Taldekako jardueretan parte hartzen duenean portaera arduratsua, konstruktiboa eta solidarioa agertzen du.

Giza taldeen arteko bizikidetza baketsuaren garrantzia balioesten du, balio demokratikoak eta guztiok onartutako giza eskubideak oinarri hartuta.

2. Sormenez eta ekintzaile-senaz jardutea, eta informazioa eta ideiak hobeto baliatzeko eta ondorio berritzaileak aurkezteko erabiltzea.

-Autonomia agertzen du ekintzak eta zereginak planifikatu eta egikaritzean, eta ekimenez jotzen du erabakiak hartzen.

3. Estatu espainiarreko kultura-, gizarte-, politika- eta hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzea, lurralde eta erkidego bakoitzeko desberdintasunak errespetatzea, eta Euskal Herriko kultura-adierazpen herrikoiak identifikatzea.

- Euskal Herriko kultura-, gizarte-, politika- eta hizkuntza-aniztasuna kultura-aberastasunaren iturri gisa balioesten du.

4. Euskal herriko eta Espainiako gizarteek iraganean izan dute bizimoduaren ezaugarri nagusiak ezagutzea eta gertaera garrantzitsuak denbora-lerroetan kokatzea.

-Euskal Herriko iraganeko tradizioak, narrazioak, istorioak, sinesmenak, esaerak eta bizimoduak aurkitzen ditu Interneten.

-Euskal Herriko egungo ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak ezagutzen eta errespetatzen ditu, eta haiekiko interesa agertzen du.

2.6.3. Sekuentzia didaktiko honekin zuzenean lotutako ebaluazio-adierazleak

-Hitanoa erabiltzen jakitea; idatziz zein ahoz

-Elkarriketak prestatzen eta egiten daki

-Txisteak eta pasadizo xelebreak genero bezala ezagutzen ditu

-Antzerkia egiten daki

2.7. Kalifikazio irizpideak

Irakasleak, aurretik deskribatutako ebaluazioaz gain, ikasleen kalifikazio-prozesuan zer eta nola kalifikatuko duen ere zehaztu behar du. Ikasleek konpetentzia bat edo beste zein neurritan garatu duten eta helburuak zein mailatan lortu dituzten jaso behar du. Horretarako, kalifikazioa ahalik eta zuzenena izan dadin, oso garrantzitsua izango da sekuentzia jorratuko den arlo guztietako irakasleen arteko koordinazioa.

FASEAK	IKASKUNTZA PROZESUA (%50)	IKASKUNTZAREN EMAITZA (%50)
Hurbilketa fasea (%30)	Datu bilketa. Parte hartzea. Iniziatiba. Lan-kooperatiboa.	Lehenengo fasean bildutako aktak. Koadernoan bildutako oharra. Ikasgelako eztabaidan parte hartzea (kantitatea eta kalitatea)
Finkatze fasea (%30)	Arreta maila. Parte hartzea. Galderak erantzutea. Arazo-egoeren ebazpenerako estrategiak. Laguntza eta lankidetzak (ikasleekin). Lanerako jarrera. Ahalegina. Frustrazioari tolerantzia. Zailtasunen aurrean antsietatea kudeatzeko gaitasuna.	Gelako koadernoak: zuzenketak ariketetan, idatzitako pasadizo nahi txisteetan eta prestatutako elkarrizketetan. Prozedurak eta emaitzak hartuko dira kontuan ebaluatu eta kalifikatzeko.
Aplikazio eta komunikazio fasea eta transferentzia gaitasuna (%40)	Parte hartzea, gaitasun estrategikoa, komunikazioa eta lan kooperatiba. Autoebaluazioa eta koebaluazioa ahoz edo idatziz.	Taldeko proiektuen portafolioak. Proiektuaren erakusketa eta azalpena. Planteatutako arazo-egoeraren ebazpena: fitxak, prozedurak eta emaitzak. Grabaketa eta antzezlanak.

2.8. Denboralizazioa

Sekuentzia didaktiko hau Euskara eta Literatura arloko ikasgai landuko da hiru-hileko baten erdian; 17 saio eskaintzeko pentsatua dago. Hori bai, ikasgela bakoitza mundu bat denez, eta haur guztien erritmoak ez direnez berdinak, batzuetan ezinbestekoa izango da aldaketak egitea. Hori bai, 17 saioak ez dira *Euskara eta literatura* ikasgaikoak izango; 2-3 aldiz, informatikako irakaslearekin elkarreraginean arituko gara. Ikasleek egindako lanak grabatu eta ondoren ordenagailu programekin editatu beharko baitituzte. Horrez gain, sekuentziaren azken helburua *Iparra-Hegoa kultur asteen* antzezlan baten hainbat pasarte antzeztea denez, antzerki tailerrean hitanoz idatzita dagoen obra baten esketxak prestatuko dituzte. Horretarako, *euskara eta literatura* ikasgai sekuentzia didaktiko hau lantzen ari garen aldi berean, 10 saio eskainiko dizkiote antzerkia prestatzeari; testuak ikasi eta muralak prestatzeari.

3. Eingo al diau?; nahi denanen, HIKA! SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

URRATSEZ URRATS

1. JARDUERA: Aurkezpen jarduera

Materiala:	Unitatearen azala eta arbela
Denbora:	Saio bat
Taldekatzea:	Talde handia eta talde txikia

Deskribapena:

- Gaiari sarrera emateko, irakasleak unitatearen azala erakutsiko du.
- Galderak luzatuko ditu: nola daude kartealeko mezuak idatzita? Zer datorkizue gogora?
- Talde txikitan galderak erantzungo dituzte eta ateratako ideiak jaso.
- Talde bakoitzeko ordezkariak beraien taldean ateratako ideiak azalduko ditu.
- Talde handian komentatuko dugu:
 - Hitanoa ezagutzen duzue?
 - Norekin erabiltzen duzue? Zuekin nork erabiltzen du?
 - Noiz erabiltzen duzue?

2. **JARDUERA:** Euskarak dituen erregistroak ezagutu

Materiala:	Ordenagailua
Denbora:	2 saio
Taldekatzea:	Talde handia eta talde txikia

Deskribapena:

- Klasearekin hasteko irakasleak galdera botako du: euskarak erregistro bakarra al du?
- Talde txikitan
- Zuka, hitanoa eta berorika ezagut ditzaten *Pernando Amezketarren* marrazki-bizidunen bideo hau ikusiko dugu.
 - Fernando Amezketarra, Apaizaren txerria
<https://www.youtube.com/watch?v=iSFFvkkuCvE>
 - Talde txikitan bertan ageri diren euskararen erregistroak identifikatuko dituzte “1. ariketan” dagoen elkarrizketan, eta ondoren *zuka ipini* horrela ez dagoen guztia.
- Bikoteka ipini eta elkarrizketa antzeztuko dute.
- Hainbat punturen gainean hitz egingo dugu:
 - Gustatu zaizue?
 - Zer gustatu zaizue gehien? Zer gutxien?
 - Zer iruditu zaizkizue euskararen erregistroak?



1. Ipini zuka hala ez dauden aditz-laguntzaileak.

Pernando: Egun on, Don Kornelio!

Apaiza: Egun on dagigula Jainkoak, Fernando!

Pernando: Ederra zerria! Ez da hala?

Apaiza: Dotorea!

Pernando: Pernil ederrak gazituko ditu aurten.

Apaiza: Bai, zera! Izugarrizko kezka zeukaat!

Pernando: Bagara bi!

Apaiza: Zer?

Pernando: Ezer ez, ezer ez.

Apaiza: Zerri honek hil behar naiz.

Pernando: Hil beza berorrek lehenago.

Apaiza: Ezin diat.

Pernando: Lagunduko diot nik.

Apaiza: Ez, ez. Pena ematen zidak.

Pernando: Bagara bi!

Apaiza: Zer?

Pernando: Ezer ez, ezer ez.

Apaiza: Halako dotorea nola hilko diat, ba!

Pernando: Ez dio hori jendeak.

Apaiza: Zer? Zer ziok ba jendeak?

Pernando: Ez duela hil nahi, gero odolkiak erregalatu behar ez izateko. Herri osoak dio berorrek ez duela ohitura bete nahi.

Apaiza: Murmurazioa, gezurra!

Pernando: Ez kasurik egin. Nik badakit zer egin behar duen.

Apaiza: Baina nola arraio? Zer egin behar nitek? Esaidak!

Pernando: Nik agindutakoa bete.

Apaiza: A, bai? Eta jakin al liteke, tira, curiositateagatik.

Pernando: Entzun beza ongi, Don Kornelio!



3. JARDUERA: Fernando Amezketarra ezagutu

Materiala:	Ordenagailua
Denbora:	Bi saio
Taldekatzea:	Talde handia eta talde txikia

Deskribapena:

- Pertsonaia xelebrerik ezagutzen duten galdetuko diegu. Komentatu zergatik eta zer nolako xelebrekeriak egiten dituzten/zituzten.
- Fernando Amezketarrari buruz galdetuko diegu:
 - Nor zen?
 - Nongoa?
 - Zein lanbide zuen?
 - Zergatik zen ezaguna?
- Galderak erantzuteko “2. ariketa” emango diegu.
- Fernandoren biografia laburra entzungo dugu eta segidan berari buruzko



fernandoamezketarra.mp3

galderak erantzungo dituzte.

- Fernando Amezketarraren marrazki-bizidunen “Fraile gazte haiek” atala ikusiko dugu 18:00 minututik aurrera.

<https://www.youtube.com/watch?v=EhCZL9j1cb4>

- Mutilei hitz egin edo neskei egin zer diferentzia dagoen aztertuko dugu.
- Forma batzuk zein besteak apuntatzeko eskatuko diegu.

2. Audioa entzun aurretik saiatu Fernando Amezketarrari buruzko galdera hauek erantzuten.



Non jaio zen Fernando Amezketarra?

Bertolarrin zen?

-Ez

-Bai

Non jaio zen?
-2001. mendean
-21. mendean
-22. mendean

Zuñ lantzele igarri zituen?

-Artzain, maitzari
bertolari...

-Nekazari, abada, poeta...

3. Audioa entzun bitartean erantzun galderak.

-Noiz jaio zen fernando amezketarra?

- 1734an
- 1764an
- 1674an

-Nolakoa zen fernando?

- Gauza asko esan dira fernandori buruz, denak gezurrak.
- Gauza asko esan dira fernandori buruz, batzuk egiak eta besteak, berriz, gezurrak.
- Gauza asko esan dira fernandori buruz, denak egiak.

-Fernandoren haurtzaroaz:

- Ziur dakiguna da: ez zen eskolara joan.
- Badakigu eskolara joan zela, baina gehiago ez.
- Oso informazio gutxi daukagu.

-Fernandok lanbide asko izan zituen:

- Bertsolari, meatzari eta artzain.
- Bertsolari lan egin zuen urte dezente, eta diru asko irabazi.
- Ertzain, bertsolari eta meatzari.

-Fernandoren ohitura omen zen:

- Bertsotan hitz egitea beti.
- Erretoreari bertsotan hitz egitea.
- Zerbait galdetuz gero, errimatuz erantzutea.

-Nola hil zen fernando?

- Goseak hil zen.
- Errekan itota.
- Aranak jan ondoren erreka ura edanda.

4. JARDUERA: Umorezko pasadizoak ahoz kontatzea

Materiala:	Grabagailua eta ordenagailua
Denbora:	3 saio
Taldekatzea:	Talde txikian eta talde handian

Deskribapena:

- Txiste eta pasadizoei buruz hitz egingo dugu?
 - Gustatzen zaizue txistek eta pasadizoak entzutea? Eta kontatzea?
 - Zuka edo hika nola kontatzen dituzue?
 - Benetakoak edo asmatuak izaten dira istorioak?
- *Antonio Bolas* ezagutuko dute “4. ariketa” eginda.
 - Iker Zubeldiak *Antonio Bolas* nor zen azalduz kantatu zituen bertsoak



Antonio Bolas.mp3

entzungo ditugu.

- Entzungaia entzun aurretik hipotesiak eraikiko ditugu.
 - Entzungaia entzun ondoren hipotesiekin alderatuko dugu.
 - *Antonio Bolas*en pasadizoak irakurri (5. ariketa) eta hitanoko formak identifikatu.
 - Zuen herrian ba al dago horrelako pertsonaiarik? Nolako istorioak kontatzen ditu? Binaka, hitanoz, pasadizoa idatziko dute (6. Ariketa).
 - Segura Irratira joango gara pasadizoak kontatzera.
 - *Lazkao Txiki* ezagutuko dugu (7. ariketa).
 - Berari buruzko marrazki-bizidunak ikusiko ditugu.
 - Taldea bitan banatuko dugu eta binaka horientzako testuak sortu beharko dituzte hitanoz. Gero testu horiekin marrazki-bizidunak bikoiztu.
- https://www.youtube.com/watch?v=ITFsh_vctek&list=PL1fNVLO3IGQ_Qx8t4HCbeKK33BE9K1A8-Z&index=3

A taldea: Eskean (06:51)

B taldea: Zakur handia (14:22)

4. Asmakizunetan jolastuko gara. *Antonio Bolas* nor zen azaltzen duen entzungaia entzungo dugu, baina, lehenengo, erantzun galdera hauei hipotesiak eginez:

Nongoa zen Antonio Bolas?

- Zegamakoa
- Zarauzkoa
- Segurakoa

Nolako gezurrak kontatzen zituen Antonio Bolasek, Amurizaren hitzetan?

-Jendeari min egiteko asmoz kontatzen zituen gezurrak

-Gezurrak egiaaren kolorean esaten zituen, dotoreak botatzen zituen

-Besterik

Nolako pasadizoa kontatuko digu Amurizak?

- Umorezkoa
- Beldurrezkoa
- Tristea

5. Irakurri pasadizo hauek eta identifikatu hitanoz dauden adizkiak.

BODAKO BAZKARIA

Herriko tabernari bat Antonio Bolas zirikatzen hasi zen:

-Antonio, egia al da laster ezkondu egiten haizela?

-Bai, ezkondu egiten nauk, eta hirurehun lagun baino gehiago gaituk bodan –erantzun zion Antoniok.

-Horiek denak ez dituk gure jatetxean kabitzen –esan zion tabernariak.

-Lasai, lasai –erantzun zion Antoniok-. Plazan eman behar diat boda-bazkaria.

-Plazan ere nahiko lan. Kabituko al duk horrenbeste jende? Hirurehun lagun asko duk, e!

-Kabituko? Bai erraz asko. Plazan metro karratu bat aski diat denak kabitzeko.

-Metro karratu bat bakarrik, eta hirurehun lagun?

-Baaai.... Ttaka! Mahai denak behetik gora jarri behar ditiat.

-Ja, ja, ja... Horrela, bai, horrela kabituko zaizkik.

SEMEA

-Hi ezkondu al hago, Antonio?

-Egongo ez nauk ba! Semea ere badiat behintzat ni baino zaharragoa eta.

BI TRIPA

-Orain horrela gosalduta eta gero bazkalduta al duk? –galdetu zion norbaitek Antoniori

-Bai, nik badaezpada ere bi tripa ekarri dizkiat.

PIJAMA

-Gauetan nola lo egiten duk, Antonio? Pijama jantzita, gantzontzilotan ala ezer gabe? –galdetu zion arreba.

-Nik ez zeukanat pijamarik, nik galtzak alderantziz jantzita lo egiten dinat gauera.

6. Zure herrian ba al dago pasadizoak kontatzen dituen inor? Zer nolakoak kontatzen ditu? (Ez baduzu ezagutzen, asmatu). Idatzi hemen.



7. Sortu *Lazkao Txikiren* marrazkiak bikoizteko elkarriketak.



5. JARDUERA: Hitanoan murgildu

Materiala:	Ordenagailua eta grabagailua
Denbora:	Euskara ikasgaiko 5 saio eta antzerkia prestatzeko (tailerrak, gorputz hezkuntza...) beste ikasgai batkeo hainbat saio.
Taldekatzea:	Talde handian eta txikian

Deskribapena:

- *Kutxidazu bidea, Ixabel* pelikulako hainbat pasarte ikusiko ditugu eta ondoren, aukeratutako hainbat esaldi hitanotik zukara pasako dituzte (8. ariketa).
- *Iragana lahar eta larrosa* Segurako herritarren antzerki obra ikusiko dugu.
 - Aktoreak gonbidatuko ditugu eskolara eta, hitanoz, antzezlanari buruzko galderak egingo dizkiegu. Horretarako aurrez, galderak prestatu.
 - Guraso eta eskola-kideei antzezteko antzerkia prestatuko dugu.

8. Juan Martinen ustez Aranguren baserriko biztanleek swahiliz hitz egiten dute. Eta zuk? Ulertzen diezu? Irakurri eleberrian agertutako esaldi hauek eta ea batuaz berridazteko gai zaren.

8. or.

- Ataldeon!
- Berdin.
- Noa hua?

8. or.

9. or.

- Ilau gaituk! Aranguren hauxe dek!

9. or.

10. or.

- Zatoz mutiko, etria ta familia ezazu behar dituzu
- Zenbat zarete zuek?
- Ba amona, gurasuak, bi anak, ahizpa eta ni, eta behiak, oiluak, koneyuak, ardi batzuk, bakurak, katuak eta euli pila bat.

10. or.

12. or.

- Bueno, motel, "tori al, kuartu" kutsiko diau!

12. or.

14. or.

- Denak behiak dira? Zezenik ez dago?
- Zezena? bai gizona! Hixe daola, zein inulitzen zake izangoala?
- Handiena, hori.
- Eztek pa hori, hori gure Juanita dek; ez al dituk erapilak ikusten?

14. or.

20. or.

- Juan Martin! Lo al hao? Esnatu hai, motel! Bueno, ez, ez hai esna, total, guk e sartu bihar diau!

20. or.

28. or.

- Hobe izango da igual beste lagunek elkarrekin ez ikustia. Parre egingo dizue, eskolara ekarri behar zaitutela-ta.

28. or.

49. or.

- Al, Juanmar, ze salua zeran; a ver, nun dezu kolpa?
- eee... ba... hemen, belaunean.

49. or.

50.or.

- Zer torero, zer moduz alergia? Pastillak hartu?
- Bai, hartu ditut, ondo nago; nola ez nauzu esnatu?
- Hain gustora ikusi zaitut. Behatza ahuan sartzia, hori bakarik falta sihasakako umia izateko.

50. or.



9. Prestatu *Iragana lahar eta larrosa* antzezlaneko aktoreei egin nahi dizkiezun galderak, hitanoz.





6. JARDUERA: Herriko hitanora hurbilpena

Materiala:	Ordenagailua, bideo-kamera eta grabagailua
Denbora:	4 saio
Taldekatzea:	4 pertsonako taldeak eta talde handia

Deskribapena:

- Herriko historia eta istorioak ondo ezagutzen dituen jendearen zerrenda egingo dugu: Erraztiolatza erakustokiko arduraduna, Ardixarra Turismo bulegoko arduraduna, baserritarrak, aitona-amonak, dendariak....
- Talde bakoitzak nor elkarrizketatu nahi duen aukeratu beharko du eta egin nahi dizkien galderak idatzi hitanoz. (*irakasleak aurrez pertsona horiekin hitz egingo du eta gelan hitanoa lantzen ari direla azaldu; ikasleak elkarrizketa egitera joandakoan hala hitz egin diezaien) (10. ariketa).
- Elkarrizketak egin eta grabatuko ditugu.
- Gelan, talde bakoitzak bere elkarrizketa entzun eta gogokoen dituen 2-3 pasarte aukeratuko ditu. Ondoren, talde handian denen pasarteak entzungo ditugu eta talde bakoitzaren onena aukeratuko dugu.
- Aukeratutako pasarteak ordenagailuan montatu eta Segura Irratira joango gara herritarrei grabaketak aurkeztera. Horretarako, aurrez gelan talde bakoitzeko esatari lanak egingo dituen aukeratuko dugu, eta baita esan behar dutena prestatu ere (11. ariketa).

10. Sortu herriko historiaren eta istorioen berri izateko galderak.

A large, vertical sheet of light beige paper with horizontal blue lines. At the top, there are ten white circular punch holes. The paper is slightly shadowed on the right side, giving it a three-dimensional appearance. It is intended for writing questions related to the local history and legends.

11. Segura Irratira joango gara herritarrei egindako elkarrizketen berri ematera. Jarraian prestatu taldeko esatariak irratian esango duena.

Azaldu beharrekoa:

-Taldearen aurkezpena

-Hizlariaren aurkezpena

-Hizlariak kontatutakoa

-Nolako esperientzia izan da?



7. JARDUERA: Amaierako ataza

Materiala:	Muralak
Denbora:	10 saio
Taldekatzea:	Talde txikiak

Deskribapena:

- **Iragana lahar eta larrosa** Segurako antzerki taldearen antzezlaneko hainbat pasarte antzeztuko dituzte.
- Antzerki tailerreko klaseetan prestatuko dute antzezlana.
- Hasteko hitanoz dauden esketxak aukeratu eta banatuko ditugu eta ondoren talde bakoitzak berea prestatuko du.
- Denon artean atzealdean ipintzeko murala marraztu eta margotuko dugu.
- Iparra-Hegoa kultur asterako ikasleek emanaldi bat prestatzen dutenez, esketx hauek prestatuko ditugu ondoren plazan eskola-kideen, iparraldeko haurren eta gurasoen aurrean antzezteko.

4. AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENA

Arestian aipatu bezala, gaur egun eskolan ez zaie garrantzi bera ematen euskararen erregistro guztiei; hitanoa galtzen ateratzen da, ez baita asko lantzen. Ondorioz, urteetan belaunaldiz belaunaldi transmititu den gure kulturaren zati bat landu gabe geratzen da. Hori horrela izanik, eskolan hitanoa lantzeko sekuentzia didaktiko bat proposatu dugu.

Esan bezala, sekuentzia didaktikoa Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleei zuzendurik dago; Lehen Hezkuntza 5 eta 6. mailako ikasleei. Segurako Laiotz Herri eskolan haur eta lehen hezkuntzako ikasketak egiten dituzte ikasleek eta ondoren eskualdeko herri handiagoetara (Beasain edota Lazkao) joaten dira ikasketekin jarraitzera. Ondorioz, sekuentzia honek ikasleengan zer nolako ondorioak izan dituen jakiteko jarraipena ezin dugu eskolaren bidez egin; ikasleak sakabanatu egiten direlako.

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalek abian jarritako *Gaztematika* proiektua martxan dago herrian. Honen helburua gipuzkoarrei nerabezaroan behar duten modu espezifikoa laguntzea da, pertsona autonomo bihurtzeko daitezkeen. Horretarako, gazteei etenik gabeko bide-laguntza profesionala eskaintzen zaie, hurbileko zerbitzu eta baliabideen bitartez.

Gaztelekuan elkartzen direnen artean talde izaera handia lortzen dute eta begiralearekin duten harremana ere oso hurbila eta konfiantzazkoa da. Izan ere, begiraleak saioetan boterea eta autoritatea duen arren, gaztetxoek bere jarrera ez dute autoritate bezala ikusten, erreferente baizik. Horregatik, urte batzuk lehenago eskolan hitanoari buruz egindako lanketari jarraipena emateko espazio egokia iruditzen zaigu. Beraien aisialdian joaten baitira bertara lagun artean elkartu eta testuinguru fresko eta dibertigarrian ekintzak egitera. Beraz, bertan lagunartean gaztetxoak zein erregistrotan aritzen diren behatzea oso erreza da. Ez hori bakarrik, eskolan hasitako proiektuari jarraipena emateko ere espazio egokia da. Gauzak horrela, aurrera begira *Gaztematikako* arduradunarekin elkarlanean, gazteen artean hitanoa bultzatzeko proiektu bat diseinatu eta martxan jarri dezakegu.

BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, J. (1993). "Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak" [Bertsio elektronikoa], *Fontes Lingua Vasconum*, 64 zenbakia, 425-442.
- ALBERDI, J. (1994). "Hitanoa non eta nork erabiltzen duen" [Bertsio elektronikoa], *Euskaltzaindia*, 39. liburukia, 3. zenbakia, 983-993.
- ANTERO A. (2016). *Konfiantzaren pedagogia, Arizmendi Ikastolaren markoa*
- AZKUE, X. (2009),
- BEITIA, I. (2017). "Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 103, 139-166.
- DE RIJK, R. P. G. (1992), "Familiarity or Solidarity: The Pronoun *Hi* in Basque", *RIEV*, 1991-2 (Año 39), XXXVI, 373-378.
- ELEXPURU, J.M. (2018), "Guk hitanoa, hik zergatik ez". https://www.berria.eus/paperekoa/1832/016/003/2018-01-11/guk_hitano_hik_zergatik_ez.htm. Azken kontsulta: 2018-07-12
- FERREIRA, N (2007), "Emakumea eta transmisioa, Euskal Herrian. Hizkuntza eta baloreak". Hiznet 06-07 sakontze egitasmoa.
- FRIEDRICH, P. (1966), "Structural Implications of Russian Pronominal Usage" in W.O. BRIGHT (1966), *Sociolinguistics*, The Hague-Paris, Mouton, 214-259.
- HENAC (2011). ERANSKINAK: Printzipio metodologikoak. *HENAC*. http://irati.educacion.navarra.es/creibzw/baliabideak/curriculumak/dok/henac_eranskinak.pdf
- HABE (2015). Helduen euskalduntzearen oinarrizko curriculumak. *HABE*. http://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/oinarriak/eu_9716/adjuntos/HEOC-digitala.pdf
- JAMES, W. (1914): *Habitat*, New York, *H. Holt and company*.
- KASARES, P. (2014), "Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 94, 13-45.
- MARTINEZ DE LEZEA, I.; ERIZE, X., ZALBIDE, M. (2018), "Euskararen bilakaera soziolinguistikoa", [Bertsio elektronikoa], *Soziolinguistika klusterra*.
- MENIKA, A. (2015), *Hizkuntza ohitura aldaketak*, Asmoz fundazioa.

- OBAYA, A. eta PONCE, R. (2007). “La secuencia didáctica como herramienta del proceso enseñanza aprendizaje en el área de Químico Biológicas. FES–Cuautitlán UNAM, (2) Escuela Normal Superior de Maestros–SEP
http://www.izt.uam.mx/newpage/contactos/anterior/n63ne/secuencia_v2.pdf
- OZAITA, J. (2014), “Hurbilpen bat Tolosaldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktikara”. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 91 zkia, 83-103.
- OZAITA, J. (2015), “Hitanoa gutxietsia dago”.
https://www.berria.eus/paperekoa/1744/004/001/2015-08-05/hitanoa_gutxietsia_dago.htm. Azken kontsulta: 2018-07-12.
- SANCHEZ J.M. “TXEPETX” (1987). *Un futuro para nuestro pasado: Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Doktorego tesia
- VILLA I SANTASUSANA, M (2010) “*Criterios para enseñar lengua oral en la Educación Obligatoria*”